



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

2013KO URRIAREN 4KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Ohiko bilera.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2013.10.04.
Ordua: Arratsaldeko 18:00etan.
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Jaime Iturria Mitxelena jn.

Zinegotziak:

Koldobike Gorostiza Uriguen and.
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.

Bertaratu ez direnak:

Ander Almandotz Indakoetxea jn., (kanpoan dago).
Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.,eri dagoelakoz.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Udalbiltza Partzuergoa eta Arantzako Udalaren arteko hitzarmena sinatzeko proposamena.
- 3.-Kalitatezko osasun-laguntza bermatzeko abiatutako legegintzako ekimena babesteko proposamena.
- 4.-2012ko abenduko aparteko osagarria anulatzeko errekerimendua.
- 5.-Espainako bandera jartzeko errekerimendua.
- 6.-Mikel Larretxea Bergara jauna: Arantzako Arau Subsidiarioen aldaketa eskaera.
- 7.- 2014ko karga tipoak, tasak eta prezio publikoak.
- 8.- Arantzako mendiko pista eta bideen erabilera eta sarbidea arautzen dituen ordenantza.
- 9.-Marra horiak jartzeko proposamena.
- 10.-Alkatearen ebazpenak.
- 11.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2013ko irailaren 5ean egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

2.-UDALBILTZA PARTZUERGOA ETA ARANTZAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA SINATZEKO PROPOSAMENA.

Ikusirik Udalbiltzak bidalitako hitzarmena, Euskal Herri mailako kohesio eta garapen sozioekonomikoa sustatzeko egitasmoa burutzeko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Aipatutako hitzarmena onartzea.
- 2) Alkateari ahalmena ematea sinatzeko.
- 3) Proiektua finantzatzeko 2.000,00 euroko ekarpena egitea, 2013ko aurrekontuan agertzen den partidaren kargura.

3.-KALITATEZKO OSASUN-LAGUNTZA BERMATZEKO ABIATUTAKO LEGEGINTZAKO EKIMENA BABESTEKO PROPOSAMENA.

Ikusirik kalitatezko osasun-laguntza bermatzeko abiatutako legegintzako ekimena babesteko proposamena.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Arantzako Udalak babeska ematen dio kalitatezko osasun-laguntza berma dadin eta Nafarroako landa-eremuetako herritarrek dituzten eskubideak eta zerbitzuak arautzeko asmoz Zangozako Merindadeko udalek abiatutako legegintzako ekimenari, martxoaren 25eko 4/1985 Foru Legeak ezartzen duenaren arabera.
- 2) Akordio honen berri ematea Pirinioetako osasun-batzarrari, erronkariko Udalari, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuari, Nafarroako Legebiltzarrari eta hedabideei.
- 3) Bertako herritarrei onartutako akordioaren berri ematea eta ekimenaren edukia ezagutarazteko behar diren bitartekoak abian jartzea.

4.-2012KO ABENDUKO APARTEKO OSAGARRIA ANULATZEKO ERREKERIMENDUA.

Adierazi da 2013ko irailaren 12an ailegatu dela Gobernuko Ordezkaritzatik 2012ko abenduko estra ordaintzeko akordioa anulatzeko errekerimendua.

Gaia udaleko abokatuen eskuan dago aztertzeko.

5.-ESPAINIAKO BANDERA JARTZEKO ERREKERIMENDUA.

Adierazi da 2013ko irailaren 19an Gobernuko Ordezkaritzak bidali zuela idatzi bat Espainiako bandera hilabeteko epean jartzeko errekerimendua emanaz.

Gaia aztertzea erabaki da.

6.-MIKEL LARRETXEAK BERGARA JAUNA: ARANTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA ESKAERA.

Ikusirik Mikel Larretxea Bergara jaunak aurkeztutako idatzia, bordak moldatzen duen artikulua aldatzeko eskatuz (horrela dauden bordak handitzeko aukera izateko).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Arantzako Arau Subsidiarioko lur ez urbanizagarria arautzen duen 19. artikulua aldaketa hasiera batez onartzea.
- 2) Espedientea jendaurrean jartzea hilabetean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, azter dadin eta bidezko alegazioak aurkez daitez.

7.- 2014KO KARGA TIPOAK, TASAK ETA PREZIO PUBLIKOAK.

Gai hau hurrengo bilerako utzi da.

8.- ARANTZAKO MENDIKO PISTA ETA BIDEEN ERABILERA ETA SARBIDEA ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA.

Ikusirik mendiko pista eta bideen erabilera arautzen duen udal ordenantza.



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.,

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako ordenantza hasiera batez onartzea eta jendaurrean jartzea hogeita hamar egun baliiodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazio, kexa edo oharra aurkez ditzaten.

2) Jendaurreko epean alegaziorik aurkezten ez bada, ordenantzaren aldaketa behin betikoz onetsita geldituko da, eta testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean emanen da argitara.

9.-MARRA HORIAK JARTZEKO PROPOSAMENA.

Herri gunean trafiko arazoei aurre egiteko beharrezkoa ikusten da zati batzuetan ez uztea aparkatzea ez eta momentu bateko ere uztea kotxea, konkretuki, Goiko Karrikan (Julinbaita ondoan, Kaltxea eta Txintxonbaita artean) eta Esto karrikan.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Beharrezkoak diren marra margotzea puntu horietan.
- 2) Kargatzeko eta deskargatzeko seinalea jartzea puntu batean eta horretarako baimena ematea, beti ere, kamiolariak udalaren baimena lortzeko baldintza pean.

10.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2013ko 61tik 69. arte).

11.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Gai zerrendatik kanpo eta, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaiak eztabaidatu dira:

12.-GURASO ELKARTEAREN DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Arantzako Guraso Elkarteak ikasturteko egutegia egiteko asmoa du. Bertan entitate desberdinak agertzen dira, nahi izanez gero.

Ikusirik egindako diru laguntza eskaera.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Arantzako Guraso Elkarteak egingen duen egutegian modulo bat jartzea eta ordezkariak 100,00 euro ordaintzea

13.-HERRIRAREN KONTRAKO OPERAZIOARI BURUZKO MOZIOA.

Pasa den astelehenean, Auzitegi Nazionalaren aginduz, Herrira mugimendu sozialaren aurkako operazio poliziala burutu eta 18 euskal herritar atxilotu zituen Guardia Zibilak. Iraganeko gertakariak ziruditenak errepikatu ziren tamalez gure herrietako kaleetan.

Egoera berri bat ireki da Euskal Herrian bereziki ETA erakundeak behin betiko su etena iragarri zuenetik. Aitzitik PPren gobernuak hasieratik uko egin dio errealitate berri honi eta gatazka behin betikoz konpontzeko dagoen aukerari muzin egin dio.

Are gehiago, gatazka armatuaren baitan sortutako estatu estrategia eta baliabide guztiak bere horretan dira. Euskal presoek eskubideak ez errespetatzeaz gain, gure herrian oinarritzko askatasun demokratikoak oraindik orain ez dira aintzat hartzen. Egoera horien baitan kokatu behar da hain zuzen Herriraren aurka Auzitegi Nazionalak burututako operazioa.

Euskal presoen euskal herriratzearen eta euren eskubideen aldeko gehiengo soazial, sindikal eta politikoa dago gure herrian eta giza eskubide guztien errespetuan oinarritutako jarreratik abiatuta, Herriraren eta atxilotutako hamazortzi kide horien lana, aipatu gehiengo sozial horri begirako ekimenak eta elkarguneak eskaintzea zen. Hau da, giza eskubide guztien errespetuan oinarrituz, gehiengo baten aldarrikapenaren alde egitea.

Burututako operazio polizial honek hain zuzen lan hori oztopatzea du helburu, gehiengo sozial, sindikal eta politiko horren aldarrikapena kaleetatik ateratzea, ezkutatzea. Giza eskubideen aldarrikapena dena kriminalizatzea. Eta unea ere ez da kasualitatea, hain zuen ere Estrasburgoko epaitegiak betirako kartzelaratzea ezartzen duen doktrinaren epaia publiko egitera doanean. Konponbide prozesu batek guztion ekarpenak eskatzen dituenean, PPren gobernuak, iraganeko errezetekin erasotzen du egoera berria; konponbidearen aukerari kalte izugarria eraginez.

Guzti horrengatik, udal honek ondoko ebazpenak onartu ditu, aho batez:

1) Arantzako Udalak Herriraren kontra burutu den operazio poliziala eta atxiloketak herri honen gehiengoari eta konponbide prozesuari egiten zaizkion eraso gisa ulertzen dituela azaldu nahi du.

2) Arantzako Udalak Herriraren kriminalizazioa helburu dezaketen ekimenak bertan behera utzi eta atxilotutakoen berehalako askatasuna eskatzen du.

3) Arantzako Udalak euskal presoek euskal herriratzea eta bere eskubide guztien aldarrikapena bere egiten du, giza eskubide guztien errespetuaren alde dagoen bezalaxe. Norabide horretan larunbat honetarako deituta dagoen manifestazio nazionalarekin bat egiten dugu.

4) Presoen eskubideen errespetuaz gain, gatazka politiko eta armatuaren parte diren gobernu, alderdi eta eragile guztiei prozesuari etengabeko ekarpena egin eta jarrera eraikitzearen bitartez laguntzea eskatu nahi diogu.

14.-ZINEGOTZI BERRIEN IZENDAPENA.

Ikusirik Bildu-Eusko Alkartasuna (EA)/Alternativa eraikitzen-EA-Alternativa koalizioak aurkeztutako idatzia, Mikel Leiza Echeverria jauna eta Teodoro Pikabea Zubieta jauna Arantzako zinegotziak izendatzeko proposatuz (kontuan hartuz beti ere zerrendako ordezkioak uko egin diotela karguari eta ez dela inor bertzerik).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Bildu-Eusko Alkartasuna (EA)/Alternativa eraikitzen-EA-Alternativa koalizioak aurkeztutako proposamena onartzea.

2) Akordio hau eta behar den dokumentazioa Madrilera bildatzea bi zinegotzi berrien kredentziala eskatuz.

Bertzerik gabe, gaueko 20:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Jaime Iturria Mitxelena jn.

